

Gasteizko 21 Eskola Agenda

KLIMA ALDAKETA

2019-2020 ikasturteko proposamenen jarraipena



| Proposamena | Egin da | Epe laburrean egitekoa da edo egiten ari da. | Epe ertain edo luzera egitekoa da. | Ez dago aurreikusita egitea | Argibide laburra |
|---|---------|--|------------------------------------|-----------------------------|--|
| HIRI IRAUNKORRA | | | | | |
| Hiriko eraikin publikoak iraunkorrak izatea, honakoak erabilia, besteak beste: ur-gastua kontrolatzeko gailuak, eguzki-plakak eraikin eta faroletan, kotxe elektrikoak kargatzeko guneak, ... | | X | | | Udal eraikinetan hainbat sistema erabiltzen da ura eta energia aurkezteko, eta ontziak, papera, boligrafoak, pilak eta abar jaso eta birziklatzeko. San Martineko eraikinean kotxe eta bizikleta elektrikoak erabiltzen dira. Eraikin askotan eguzki-plakak daude. Led argiak erabiltzen dira eraikinak eta bide publikoa argitzatzeko. |
| Bisitaldi gidatuak egitea udal eraikin iraunkorretara, jendeak ezagutu ditzan. | | X | | | Hainbat udal eraikin bisitatu dira 2030 Agendaren eskola proiektuaren barruan. Halaber, hainbat eskola-jardueratan, ura kudeatzeko ekipamenduak eta energia aurreztu eta eraginkortasunez erabiltzeko prestatutako ekipamenduak bisitatu dira. Horretaz gain, Etxe Berdeak programan ere badira ekipamendu horiek bisitatzeko aukerak. |
| Euri-ura jaso eta erabiltzea landareak ureztatzeko eta komunetarako. | X | | | X | Hainbat gunetan hobetu egin da euri-uraren erabilera, esaterako Gasteiz hiribidean, inguru horretako landareetarako erabiltzerik izateko. Egungo araudiak ez du bestelako erabilerarik jasotzen. Euri-ura hiri osoan aprobetxatu ahal izateko, obra handiak egin beharko lirateke, eta egun ezinezkoa litzateke horien kostuak gain hartzea. |

| Proposamena | Egin da | Epe laburrean egitekoa da edo egiten ari da. | Epe ertain edo luzera egitekoa da. | Ez dago aurreikusita egitea | Argibide laburra |
|--|---------|--|------------------------------------|-----------------------------|--|
| MUGIKORTASUNA | | | | | |
| Garraio publiko gehiago jartzea, eskolara oinez edo bizikletan joaterik ez dagoenean erabili ahal izateko. Garraio publikoaren erabilera sustatzea herritarren artean. | | X | | | L2 linea edukiera handiko % 100 elektriko bihurtzen ari da, eta tranbia Salburura hedatzen. Bestalde, autobus sarea egokitzeko azterlan baterako lehiaketa deitu da, tranbia Salburura hedatu eta unibertsitatera luzatu izana dela eta. |
| Kotxeen zirkulazioa mugatzea hainbat ordutan. | | | X | | Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Planean aztertzen ari da trafiko mugatuko eremu berriak jartzeko aukera. |
| Eskolara bizikletaz, patinez edo oinez joan ahal izatea eta horretarako baldintza egokiak jartzea (bidegorri praktikoak, oinezkoentzako ibilbideak...) | | X | | | Bizikleta-konexio berriak egin dira ibilbide bereizien bitartez, eta lanean jarraitzen dugu sare funtzional segurua izateko oinezkoentzat zein txirrindularientzat. |
| Dirulaguntzak ematea lanera oinez edo bizikletaz doazenei. | | X | | | Industrialdeetara joateko mugikortasun plana lantzen ari da, eta bertan hainbat aukera aztertuko dira, horien artean, adierazitakoa. |
| Bizikleta elektrikoaren zerbitzu publikoa sustatzea. | | | | X | |

| Proposamena | Egin da | Epe laburrean egitekoa da edo egiten ari da. | Epe ertain edo luzera egitekoa da. | Ez dago aurreikusita egitea | Argibide laburra |
|--|---------|--|------------------------------------|-----------------------------|--|
| ELIKAGAIAK | | | | | |
| Elikagaien kalitatea hobetzea. | X | | | | Menuak osatzeko lehengaiak osasuntsuak, askotarikoak, sasoiak sasoikoak, eta gehienez ekologikoak dira. Gainera eskoletako sukaldeetan prestatzen dira. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzan lanean ari da "ekimen osasuntsuak" programarekin, zeinaren xedea menuen kalitate nutrizionala balioestea eta hobetzea den. |
| Tokiko produktuen kontsumoa sustatzea udalaren ekitaldietan. | | X | | | Lege arrazoiak direla eta, ezinezkoa da tokiko produktuaren alde egitea udal kontratazioetan. Asteroko azoka txikiak babesten dira, non presentzia handia izaten duten tokiko ekoizleak, eta sustatu egiten da tokiko produktu ekologikoen eskaintzaren hedapena udalerrian. |
| Hiri-baratzeak bultzatzea. | X | | | | Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak hiri-baratzeen jarduerak sustatzen ditu ikastetxeetan, gizarte-etxeetan, udal-baratzeetan, gizarte-ekimenetan, adinekoentzako zentroetan, eta, oro har, interesa duten edozein esparru edo kolektibotan. https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?idioma=eu&uid=u7aa80ad4_14868c61a75_7f95 |

| Proposamena | Egin da | Epe laburrean egitekoa da edo egiten ari da. | Epe ertain edo luzera egitekoa da. | Ez dago aurreikusita egitea | Argibide laburra |
|--|---------|--|------------------------------------|-----------------------------|--|
| HONDAKINAK | | | | | |
| Puntu berde mugikor gehiago jartzea. Pizgarriak ematea birziklatzeagatik. | | X | | | Beste Garbigune bat jarriko da Salburuan. |
| Gainordaina egotea plastikoz bilduta datozen produktuentzat. Papera jartzea plastikoen ordez, udalaren legeriak ezartzen duen neurrian. Oihalezko poltsen erabilera sustatzea plastikozkoen ordez. | | X | | | Hori legezkatzea ez da udalaren eskumena. Udala lanean ari da berari dagokion arloan. Saltegiek orain ezin dute plastikozko poltsarik eman kobratu gabe. |

| Proposamena | Egin da | Epe laburrean egitekoa da edo egiten ari da. | Epe ertain edo luzera egitekoa da. | Ez dago aurreikusita egitea | Argibide laburra |
|--|---------|--|------------------------------------|-----------------------------|---|
| BIODIBERTSITATEA | | | | | |
| Klima-aldaketari buruzko hausnarketa eta naturaren balioespena sustatzen dituzten ekintzak egitea. | X | | | | Udalak gai horiei buruzko jarduerak, kanpainak, lantegiak eta ikastaroak antolatzen ditu hainbat zerbitzutan. |
| Zuhaitz gehiago landatzea, obrak direla eta hainbat moztu direlako. | | X | | | Obrengatik moztutako zuhaitzak baino gehiago dira urtero gune berrietan landatutakoak. |

| Proposamena | Egin da | Epe laburrean egitekoa da edo egiten ari da. | Epe ertain edo luzera egitekoa da. | Ez dago aurreikusita egitea | Argibide laburra |
|--|---------|--|------------------------------------|-----------------------------|---|
| KONTZIENTZIAZIOA | | | | | |
| Klima-aldaketari buruzko zabalkunde-ekintzak egitea, herritarrak informatzeko eta gariari buruzko zalantzak argitzeko. | | X | | | Udalak gai horiei buruzko jarduerak, kanpainak, lantegiak eta ikastaroak antolatzen ditu hainbat zerbitzutan. |
| Gizakientzat eta naturarentzat positiboak diren ekintzak ezagutaraztea. | | X | | | IGIk eskola- eta familia-programetan lantzen ditu alderdi horiek. |

| Proposamena | Egin da | Epe laburrean egitekoa da edo egiten ari da. | Epe ertain edo luzera egitekoa da. | Ez dago aurreikusita egitea | Argibide laburra |
|--|---------|--|------------------------------------|-----------------------------|--|
| GOBERNANTZA | | | | | |
| Diru publikoa gehiago eta hobeto banatzea klima-aldaketarekin lotutako arloetan. | | X | | | Klima-aldaketak indar handiagoa hartzen du, egunetik egunera, agenda politikoan. Izan ere, Gasteizko udalak Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saila du, Eusko Jaurlaritzak Klima aldaketaren Euskal Estrategia (2050), eta Gobernuak Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa. |